

## 10. KAROBIA ETA ZERRATEGIA (115 min)

Begiratokia uzten dugunean bidera itzuliko gara, berriro ere jaitsiz. Zenbait ezpel ikusiko ditugu, 3 metroko altueraraino iristen direnak, arte batzuen ondoan.

Inguruko jarduera tradizionalen zenbait arrasto ikusiko ditugu, adibidez karobi eta zerrategi zaharrak.



## 11. LA CASILLA-ATAKA BIDEGURUTZEA (130 min)

La Casilla Atakako igoyerarekin bat egingo dugu gero. Hemendik Korres 2,8 km dioen seinaleari jarraituko diogu. Beraz, berriz ere ibilbidearen hasierako tartean gaude.

40 bat minutu beharko dugu Korresera heltzeko.

### IBILBIDEAREN DESKRIBAPENA

Ibilbidea: Lineala

Luzera: 8.800 m

Zailtasuna: Ertaina

Iraupena, gutxi gorabehera: 170 min

Igo beharreko malda: 522 m



### NOLA HELDU

Ibilbidea Parketxean hasiko da, Korres herrian.



### CASA DEL PARQUE - PARKETXEA

01129 Korres - ARABA

Tfno. (34) 945 41 05 02

parqueizki@parques.alava.net



Legre Gordailua • Depósito Legal: VI-4747/13.

## IZKIKO PARKE NATURALA



## San Roman

### IBILBIDE LINEALA



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

## 1. KORRES (0 min)

Ibilbidea Korres herriko Kale Nagusian hasiko dugu, San Roman zidorraren jarraibideei jarraiki.



## 2. ATSEDENLEKUKO ZUBIA (5 min)

Herriko beheko aldera iristean, argazkiko zubia zeharkatuko dugu, atsedenekua eskuinean utziz, eta pistan zehar jarraituko dugu, San Roman zidorrari jarraituz.



## 3. DONE PETRIKO BIDEGURUTZEA (15 min)

Puntu honetan bidegurutzean ezkerrera egin behar dugu, San Roman zidorretik igoz.



Bidearen zatirik luzeena basoan zehar doa. Pagadi (*Fagus sylvatica*) ezpeldunak (*Buxus sempervirens*), erkameztiak (*Quercus faginea*) eta arte (*Quercus ilex*) handiak nabarmentzen dira, eta mendi larre zati batzuekin kontrastea egiten dute.

## 4. SOILA (25 min)

Poliki-poliki, basoa irekiko da eta zelai bat ikusiko dugu. Hortik Soila mendiaren ikuspegi bikaina izango dugu, gure ezkerrean.



## 5. BIDEXKA DESBIDERAKETA (35 min)

Pagadi ezpeldun ospelean barna metro batzuk ibiliz gero zidor nagusitik irtengo gara eta eskuinean gora doan bidexkatik abiatuko gara.



## 6. LA CASILLA ATAKA BIDEGURUTZEA (60 min)

Zenbait minutuz ibili eta ametz (*Quercus pyrenaica*) baso bat zeharkatu ondoren, hurrengo seinalea ikusiko dugu. Done Erroman zidorretik jarraituko dugu, La Casilla Atakarantz.

**KONTUZ!** Bi seinaleetan ageri baita hitz hori. Ez dugu eskuinteko bidea hartu behar, itzultzeko bidea da-eta.



Altuera handian dagoen pagadi bat zeharkatu eta azken metroetako aldapa gainditu ondoren mendi lepora helduko gara: ezkerrean La Muela mendia dago eta eskuinean El Santo haitza.

## 7. LA CASILLA ATAKA (70 min)

Begiratoki natural honetatik Soila mendia ikus dezakegu, atzera begiratuta. Aurrez aurre Kantabriako Mendizerrako horma handia ikusiko dugu eta gure azpian, Durruma Kanpezu herria.

La Muela mendiko tontorrera igoz gero, tontorretik bide bera hartuta itzuli beharko dugu zidorretik jarraitu ahal izateko.



Ibilbidearekin jarraitzeko, San Roman basilizako norabidea adierazten duen seinaleari jarraituko diogu.

## 8. SAN ROMAN BASELIZA (90 min)

San Roman basilizan sartzeko, seinaleztatuta dagoen bide txiki bat hartuko dugu. Bazter zoragarria da. Izatez haitzulo naturala da, eta ahoa harkaitzetako hormaren albo batean dauka. Gaur egun hormatuta dago.

Baselizara bisita egin ondoren, zidorrari ekingo diogu, utzi dugun lekuan, eta albo arrokatsuaren ondotik jarraituko dugu.



## 9. TXAMUNIOKO BEGIRATOKIA (100 min)

Herriko beheko aldera iristen garenean, zubia zeharkatuko dugu. Zidorra behegera doa pagadi ezpeldun batean zehar. Laster, eskuinera eramango gaituen seinale bat ikusiko dugu (San Roman zidorra 20'). Langa bat igaro ondoren Txamunioko begiratokiraino eramango gaitu. Begiratoki natural honetatik Izkiko amezti zabalaren ikuspegi panoramiko ederra daukagu.

